IRAGARKIA, «Ballontiko etengailua, goiko zatia» proiektua informazio publikoan jartzeari eta proiektuak ukitutako ondasunen eta eskubideen zerrenda informazio publikorako jendaurrean jartzeari buruzkoa. 18765

ANUNCIO relativo a la Información Pública del Proyecto del «Interceptor del Ballonti, tramo Superior», y exposición al público de la relación de bienes y derechos afectados por su ejecución. 18765

# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARTIZA

### Zk-5804

5/2002 LEGEA, urriaren 4koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Egitamu Nagusia araupetzen duen Legea bigarren aldiz aldatzekoa.

Eusko Legebiltzarrak ondoko legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:

URRIAREN 4KO 5/2002 LEGEA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERREPIDEEN EGITAMU NAGUSIA ARAUPETZEN DUEN LEGEA BIGARREN ALDIZ ALDATZEKOA.

ZIOEN AZALPENA

Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Egitamu Nagusia araupetzen duen maiatzaren 30eko 2/1989 Legeak, azaroaren 8ko 2/1991 Legearen bidez aldatuak, Euskal Autonomia Erkidegoko errepide sareak koordinatzea helburu duen plangintza tresna horren edukia eta araubidea ezartzen ditu, eta, aplikazio eremua, hau da, planaren gai den sarea zehazten du. Planaren gai den sare horretan lehentasuneko sareko errepide guztiak eta oinarrizko sareko zenbait sartzen dira.

Azaroaren 8ko 2/1991 Legearen bidez osatu egin zen planeko sare horretan sartutako errepideen zerrenda, eta, bide batez, zerrenda horren aldaketa teknikoa legez bestelako bide batez egitea erabaki zen.

Aldaketa teknikoak birritan gauzatu dira: abenduaren 30eko 355/1992 Dekretuaren bidez egin zen Errepideen 1. Plan Orokorraren berrikusketan eta ekainaren 8ko 250/1999 Dekretuaren bidez onartutako Errepideen 2. Plan Orokorrean, 1999-2010 urteetarakoan. Aldaketa horiek, aurretik erabiltzen ziren tarteen ordez eraiki berri diren beste batzuk erabiliko direla adieraztera mugatu dira.

Hala, gaurdaino, Errepideen Plan Orokorraren gai den sareko errepideen zerrendan ez da funtsezko aldaketarik egin.

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### N°-5804

LEY 5/2002, de 4 de octubre, de segunda modificación de la Ley Reguladora del Plan General de Carreteras del País Vasco.

Se hace saber a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente Ley:

LEY 5/2002, DE 4 DE OCTUBRE, DE SEGUNDA MODIFICACIÓN DE LA LEY REGULADORA DEL PLAN GENERAL DE CARRETERAS DEL PAÍS VASCO

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Ley 2/1989, de 30 de mayo, reguladora del Plan General de Carreteras del País Vasco, modificada por la Ley 2/1991, de 8 de noviembre, establece el contenido y el régimen de este instrumento de planificación sectorial, cuyo objeto es coordinar las redes de carreteras de la Comunidad Autónoma, así como su ámbito de aplicación, la red objeto del plan, en la cual se encuentran todas las carreteras de la red de interés preferente y parte de las carreteras de la red básica.

Mediante la Ley 2/1991, de 8 de noviembre, se completó la relación de las carreteras integradas en la red objeto del plan, a la vez que se deslegalizaba su modificación técnica.

Dicha modificación técnica se ha producido en dos ocasiones: en la revisión del 1er Plan General de Carreteras, realizada mediante Decreto 355/1992, de 30 de diciembre, y en el 2.º Plan General de Carreteras, correspondiente al periodo 1999-2010, aprobado por Decreto 250/1999, de 8 de junio. Su alcance se ha limitado a reflejar la sustitución funcional de determinados tramos tradicionales de la red por otros de nueva construcción.

Hasta la fecha, la relación de carreteras de la red objeto del Plan General de Carreteras no ha sido objeto de ninguna modificación sustancial.

Errepideen 2. Plan Orokorra, 1999-2010 urteetarakoa, onartu ondoren, ordea, planaren gai zein sarean zein errepide zeuden berraztertu beharra ikusi zen. Horixe da, hain zuzen ere, lege honen helburua, planaren gai den sarearen katalogo berria finkatzea (katalogo hori I. eranskinean dator, eta maiatzaren 30eko 2/1989 Legearen eranskina ordeztuko du).

Horrela, bada, katalogo berrian, alde batetik, ibilbide berri batzuk sartu dira; izan ere, kasuan kasuko lurraldea egituratzen dutenez edo bi lurraldetako elkarren ondoko eskualdeak lotzen dituztenez, edota probintziak edo erkidegoak lotzen dituzten beste ibilbide batzuen barruan sartzen direnez, horiek bultzatzea komeni delako. Bestetik, arrazoi batengatik edo besteagatik funtzionaltasuna galdu duten zenbait errepide kendu egin da. Eta, oro har, izendapen, ibilbide eta luzerari buruzko datuak eta errepideei buruzko oharrak eguneratu egin dira, eskumenen banaketara eta Konstituzio Auzitegiaren erabakietara egokitzeko.

Zehatzago esanda, hona hemen proposatutako aldaketak eta horretarako arrazoiak:

Planaren gai den sarean honako errepideok sartu dira: lehentasuneko sarean, Donostia-San Sebastiángo bigarren saihesbidea eta, eskualdaketa egiten denerako, N-121 errepidea (ibilbide horiek maiatzaren 30eko 2/1989 Legearen 5.1.a artikuluko baldintza bat edo gehiago betetzen baitituzte), eta oinarrizko sarean, A-124, BI-631, BI-633, BI-635, BI-637, BI-639, BI-625, BI-604 eta GI-631 errepideak (lurralde historiko bakoitzaren barruan sarea egituratzen duten ardatz gisa funtzionatzen baitute), eta BI-638 eta GI-638 errepideak (bi lurraldetako elkarren ondoko eskualdeak lotzen baituzte).

Errepideen Plan Orokorraren gai den saretik honakoak kendu dira: N-130 eta GI-120 errepideak, funtzionaltasuna galdu baitute, lehenengoak A-15 autobideak aukera hobea eskaintzen baitu, eta bigarrenak, N-240 eta N-I errepideek eskaintzen duten ibilbide alternatiboan egindako hobekuntzengatik.

Gainera, sarean egindako lanengatik edo ibilbide batzuek funtzionaltasugatik beste batzuk ordeztu dituztelako zenbait aldaketa tekniko egin da, zenbait errepidetako ibilbideen eta luzeraren adierazpidean. Bestetik, GI-632 eta BI-632 errepideetan ibilgailu astun asko ibiltzen denez, lehentasuneko sarera igaro dira, N-636 kodearekin.

Azkenik, beste aldaketa batzuk ere egin dira, errepide edo tarte bakoitzean aginpidea zein Administraziok duen behar bezala jasotzeko eta, lurraldetasun kontuak direla-eta, errepide tarte bat ibilbideren batetik kentzeko. Aldaketa horiek honako errepide hauetan egin dira: A-8 autobidean, eginkizunak eta zerbitzuak Estatuak Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunei eskualdatu ondoren, erakunde horiek era berean,

Sin embargo, tras la aprobación del 2.º Plan General de Carreteras, correspondiente al periodo 1999-2010, surge la necesidad de revisar las carreteras integradas en la red objeto del mismo. Ése es, precisamente, el objetivo de la presente ley, cuyo Anexo I, que contiene el nuevo catálogo de la red objeto del plan, sustituye al anexo de la Ley 2/1989, de 30 de mayo.

En el nuevo catálogo, por una parte, se han incorporado nuevos itinerarios que se considera conveniente potenciar, por sus funciones de estructuración de la red dentro de cada territorio o de conexión de comarcas vecinas de dos territorios, o por su integración en itinerarios interprovinciales o interautonómicos. Por otra, se han excluido determinadas carreteras que, por diversos motivos, han perdido funcionalidad. Y, en general, se han actualizado los datos relativos a la denominación, itinerario y longitud de las carreteras, así como las observaciones sobre las mismas, acomodándose al reparto competencial y a los pronunciamientos del Tribunal Constitucional al respecto.

En concreto, las modificaciones y las razones que las motivan son las siguientes:

Se han incorporado a la red objeto del plan las siguientes carreteras: en la red de interés preferente, el segundo cinturón de Donostia-San Sebastián y, una vez realizado el traspaso, la carretera N-121 (itinerarios que cumplen una o varias de las condiciones del apartado 1.a del artículo 5 de la Ley 2/1989, de 30 de mayo), y en la red básica las carreteras A-124, BI-631, BI-633, BI-635, BI-637, BI-639, BI-625, BI-604 y GI-631 (que funcionan como ejes estructurantes de la red dentro de cada territorio histórico), y las carreteras BI-638 y GI-638 (que conectan comarcas vecinas de dos territorios).

Se han excluido de la red objeto del Plan General de Carreteras las carreteras N-130 y GI-120, que han perdido su funcionalidad, debido a la existencia del itinerario alternativo A-15 en el primer caso, y a las mejoras en el recorrido alternativo N-240 y N-I en el segundo.

Se han introducido, asimismo, diversas modificaciones técnicas, que afectan a la expresión del itinerario y longitud de determinadas carreteras, alterados como consecuencia de intervenciones en la red o reflejo de la sustitución funcional de unos tramos por otros. Por otra parte, las carreteras GI-632 y BI-632, que acogen un volumen considerable de vehículos pesados, se han incorporado a la red de interés preferente con la denominación N-636.

Finalmente, se han realizado otras modificaciones cuyo objeto es la correcta consignación de la Administración competente sobre la carretera o tramo y, en su caso, la exclusión de un tramo del itinerario por razones de territorialidad. Es el caso de las modificaciones que afectan a las siguientes carreteras: a la autopista A-8, para reflejar la situación tras la transferencia de funciones y servicios del Estado a las instituciones comunes

lurralde historikoei eskualdatu zizkiela islatzeko; N-I errepidean, Trebiñoko Konderriko tartea kendu egin da, Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 18ko 132/1998 epaiak egindako inkonstituzionaltasun-adierazpenaren eraginez; A-624 errepidean ere, Burgosko probintzian egiten duen tartea kendu da, eta BI-624 errepidean, Bizkaiko Foru Aldundiari baitagokio kudeatu eta ustiatzea.

*Artikulu bakarra.*– Euskadiko Errepideen Plan Orokorraren gai den sareko errepideen zerrenda aldatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Egitamu Nagusia araupetzen duen maiatzaren 30eko 2/1989 Legearen eranskina, azaroaren 8ko 2/1991 Legearen bidez aldatu zena, I. eranskinean datorren bezala utziko da. Eranskin horrek Euskadiko Errepideen Plan Orokorraren gai den sarearen katalogoa jasotzen du.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

N-121 errepideak Gipuzkoan egiten duen tartea eskualdatzen badu Nafarroako Foru Erkidegoak, tarte hori automatikoki sartuko da planaren gai den sarean, II. eranskinean datozen xehetasunekin.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.

Funtzionaltasunari begira soil-soilik, planaren gai den sareko zenbait errepide Estatuaren interes orokorreko sarean sartu ahal izango dira:

– A-8, Bilbao-Behobia autobidea
– A-1, Burgos-Kantaurialdea (Maltzaga) autobidea
– A-15, Aduna-Irurtzun autobia
– N-I, Madril-Irun
– N-622, Vitoria-Gasteiz-Altube (A-68)
– N-636, Beasain-Durango (Kanpazartik)

AZKEN XEDAPENA

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

de la Comunidad Autónoma, y de éstas a los territorios históricos; a la carretera N-I, consistente en recoger la exclusión del tramo del Condado de Treviño, afectado por la declaración de inconstitucionalidad realizada por la sentencia del Tribunal Constitucional 132/1998, de 18 de junio; a la carretera A-624, en la cual se ha excluido asimismo el tramo que discurre por la provincia de Burgos, y a la carretera BI-624, cuya gestión y explotación corresponden a la Diputación Foral de Bizkaia.

*Artículo único.*– Modificación de la relación de carreteras de la red objeto del Plan General de Carreteras del País Vasco.

El anexo de la Ley 2/1989, de 30 de mayo, reguladora del Plan General de Carreteras del País Vasco, que contiene el catálogo de la red objeto del Plan General de Carreteras del País Vasco, modificado por la Ley 2/1991, de 8 de noviembre, queda redactado como consta en el Anexo I.

DISPOSICIÓN ADICIONAL PRIMERA

En el caso de que la carretera N-121, en el tramo que discurre por Gipuzkoa, sea objeto de transferencia por parte de la Comunidad Foral de Navarra, se integrará automáticamente en la red objeto del plan, con la descripción que consta en el Anexo II.

DISPOSICIÓN ADICIONAL SEGUNDA

Se considera, a efectos única y exclusivamente funcionales, que los siguientes ejes viarios de la red objeto del plan pueden ser incluidos en la red de interés general del Estado:

– A-8, Autopista Bilbao-Behobia
– A-1, Autopista Burgos-Cantábrico (Maltzaga)
– A-15, Autovía Aduna-Irurtzun
– N-I, Madrid-Irun
– N-622, Vitoria-Gasteiz-Altube (A-68)
– N-636, Beasain-Durango (por Kanpazar)

DISPOSICIÓN FINAL

La presente ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

# I. ERANSKINA

## EUSKADIKO ERREPIDEEN PLAN OROKORRAREN GAI DEN SAREAREN KATALOGOA

| KODEA | IZENA | HASIERA | AMAIERA | LUZERA (km) | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|---|
| **A. IPARRA-HEGOA KORRIDOREA** | | | | | |
| A-1 | Burgos-Kantaurialdeko autobidea (Maltzaga) | Arabako muga Rivabellosan | Eibar (Maltzaga, A-8) | 74,80 | |
| N-I | Madril-Irun | Burgosko muga Rivabellosan | Trebiñoko Konderriko muga | 7,75 | |
| N-I | Madril-Irun | Trebiñoko Konderriko muga | Nafarroako muga | 55,54 | |
| N-I | Madril-Irun | Nafarroako muga | Irun (muga) | 79,50 | |
| N-102 | N-Ietik Vitoria-Gasteiza, Frantziako norabidean | N-I, Ariñezen | Vitoria-Gasteiz, Armentian | 5,39 | |
| N-104 | Vitoria-Gasteiztik N-Iera, Frantziako norabidean | Vitoria-Gasteiz, Arana | N-I (Venta del Patio) | 9,47 | |
| GI-131 (*) | Andoaindik Donostia-San Sebastiána, Hernanitik | Andoain (N-I) | Donostia-S.S. (Loiolako gurutzagunea) | 14,70 | |
| N-638 | Hondarribiko aireportuko sarbidea | Irungo iparraldeko saihesb. | Hondarribiko aireportua | 2,50 | |
| **B. KANTAURIALDEKO KORRIDOREA** | | | | | |
| A-8 | Kantaurialdeko autobidea | Irun -Behobia | Basauri | 105,69 | Donostiako saihesbidea izan ezik |
| A-8 | Kantaurialdeko autobidea | Añorgako lotunea (Donostia-SS) | Herrerako lotunea (Donostia-SS) | 5,27 | Donostiako saihesbidea |
| A-8 | Kantaurialdeko autobidea | Basauri | Barakaldo (Cruces) | 12,13 | Bilbao hegoaldeko soluzioa |
| A-8 | Kantaurialdeko autobidea | Barakaldo (Cruces) | Kantabriako muga | 16,76 | Ugaldebieta soluzioa |
| A-8 | Donostia/San Sebastiángo bigarren saihesbidea | A-8, Aritzetan | A-8, Errenterian | 14,50 | |
| N-634 | Donostia-SStik Santander eta Coruñara | Donostia-SS (Errekalde N-I) | Atxuri | 110,96 | |
| N-634 (*) | Donostia-SStik Santander eta Coruñara | Basurto (Bilbao) | Kantabriako muga | 22,01 | Zerbitzuan jarritakoan, Nocedal- Zorrotzako saihesbidea N-634 errepidetzat joko da ondorio guztietarako |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| N-637 | Crucestik (aldagurutzetik) Gomuzio-Erletxera Rontegiko zubitik | Crucesko lotunea | BI-604rekiko lotura | 3,82 | |
| N-637 | Crucestik (aldagurutzetik) Gomuzio-Erletxera Rontegiko zubitik | BI-604rekiko lotura | N-633rekiko lotura (Derio) | 6,73 | |
| N-637 (*) | Crucestik (aldagurutzetik) Gomuzio-Erletxera Rontegiko zubitik | N-633rekiko lotura (Derio) | Gomuzio-Erletxe | 9,64 | Txorierriko korridorea (Larrabetzuko saihesbidea barne) |
| N-633 | Bilboko aireportuko ekialdeko sarbidea | N-637 | Aireportua | 4,66 | |
| N-633 | Bilboko aireportuko mendebaldeko sarbidea | Aireportua | BI-637 | 5,05 | |
| N-644 | Portuko autobia | A-8 | Bilboko portua | 2,86 | |
| N-639 | Portuko sarbidea, Zierbenatik | Bilboko portua (Abra kanpoaldea) | N-634 | 8,44 | |
| BI-637 | Erandioko lotunetik Artatzara | N-637 lotunea | Artatza | 5,42 | |
| BI-637 | Artatzatik Sopelanara | Artatza | Sopelana | 5,50 | Uribe Kostako korridorea |
| BI-639 | Uribe Kostatik A-8ra | Artatza | A-8 lotunea | 4,35 | Lamiakoko korridorea |
| BI-633 | Durangotik Ondarroara, Trabakuatik | Matiena (N-634) | Ondarroa | 27,58 | |
| BI-635 | Lemoatik Gernikara | Lemoa (N-240) | Gernika | 18,43 | |
| BI-625 | Iparraldetik Bilborako sarbidea (Urduña-Bilbao ibilbidea) | N-634ko bidegurutzea | Artxandako tarteko lotura (La Salve), egiten denean | 4,29 | |
| BI-625 | Artxandako tartea (Urduña-Bilbao ibilbidea) | La Salve | Ibarrekolanda (BI-604) | 2,46 | |
| BI-631 (*) | Bilboko ekialdeko saihesbidea | A-8 | N-633ko hegoko lotura | 7,39 | |
| BI-631 | Mungia-Bermeo korridorea | N-633ko iparreko lotura | Bermeo | 24,75 | |
| BI-604 | Bilbotik Asuara, Enekuritik | Deustuko beheko aldean saihesbidea | La Cadena (BI-2704) | 5,30 | Deustuko beheko saihesbi dea- Ibarrekolanda |

C. EBROKO KORRIDOREA

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| A-68 | Bilbao-Zaragoza autobidea | A-8ko lotunea (hegoaldeko soluzioa) | Errioxako muga | 77,00 | Estatuko Administrazioaren emakida |
| N-124 | Vitoria-Gasteiztik Logroñora, Harotik | Armiñón (N-I) | Briñas (Errioxako muga) | 14,38 | |
| A-124 | Briñastik Logroñora, Laguardiatik (Arabako tartea) | Errioxako muga (Briñas) | Errioxako muga | 27,76 | San Vicente de la Sonsierrako tartea izan ezik |

D. BIZKAIA-BURGOS LOTURA

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| BI-636 (*) | Bilbotik Reinosara | Bilbao (A-8) | Burgos probintziako muga | 29,13 | Cadaguako korridorea |

E. BIZKAIA-KANTABRIA LOTURA

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| BI-630 | Balmasedatik Karrantzara | Balmaseda (BI-636) | Kantabriako muga | 24,48 | Turtzioz (Kantabria) enklabeko tartea kenduta |

F. BURGOS-SANTANDER LOTURA

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| N-629 | Burgostik Santoñara | Kantabriako muga | Kantabriako muga | 4,96 | Lanestosa udalerria |

G. NAFARROA-GIPUZKOA LOTURA

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| A-15 | Irurtzun-Aduna autobia | Nafarroako muga (Berastegi-Urto) | Aduna (N-I) | 17,32 | |

H. ARABA-NAFARROA LOTURA

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| A-132 | Vitoria-Gasteiztik Irunberrira, Lizarra eta Tafallatik | N-104, Elorriagan | Nafarroako muga, Kanpezun | 37,88 | |

I. ARABA-BIZKAIA LOTURA

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| N-622 | Vitoria-Gasteiztik Bilbora, A-68 autobidetik | Zadorra hiribideko zubia, Vitoria-Gasteizen | Altube (A-68) | 19,35 | |
| N-240 | Tarragonatik Bilbora, Barazar mendatetik | Gamarra Nagusia, Vitoria-Gasteizen | Galdakao (Urgoiti N-634) | 50,74 | |
| BI-625 | Urduñatik Bilbora | Arabako muga | N-634ko bidegurutzea | 17,76 | Urduñako tartea barne |
| A-625 | Urduñatik Bilbora | Arabako muga, Aretan | Bizkaiko muga | 21,03 | Amurrioko saihesbidea barne |
| A-623 | Vitoria-Gasteiztik Durangora | Legutiano (N-240) | Bizkaiko muga, Gomilazen | 6,04 | |
| BI-623 | Vitoria-Gasteiztik Durangora | Arabako muga, Gomilazen | Durango (N-634) | 20,86 | |
| N-624 | Forondako aireportuko sarbidea | N-622ko lotunea | Forondako aireportua | 3,48 | |

J. ARABA-GIPUZKOA LOTURA

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| A-627 | Vitoria-Gasteiztik Eibarra | N-240 | Gipuzkoako muga | 5,36 | |
| GI-627 | Vitoria-Gasteiztik Eibarra | Arabako muga | Eibar (Maltzaga) | 38,29 | |

K. ARABA-KANTABRIA LOTURA

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| A-624 | Altubetik Balmasedara (Arabako tartea) | N-622 | Burgosko muga | 38,39 | |
| BI-624 | Altubetik Balmasedara (Bizkaiko tartea) | Burgosko muga | Balmaseda (BI-636) | 2,64 | |

L. GIPUZKOA-BIZKAIA LOTURA

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| N-636 (*) | Beasaindik Durangora, Kanpazartik | Beasain (N-I) | Bizkaiko muga | 35,35 | Bergara eta Arrasate artean N-636k bat egiten du A-1ekin |
| N-636 (*) | Beasaindik Durangora, Kanpazartik | Gipuzkoako muga | Durango | 16,24 | |
| BI-638 | Debatik Ondarroara | Gipuzkoako muga | Ondarroa | 1,24 | |
| GI-638 | Debatik Ondarroara | Deba (N-634) | Bizkaiko muga | 7,90 | |
| GI-631 | Zumaiatik Zumarragara | Zumaia (N-634) | Zumarraga (GI-632) | 34,50 | |

(*) Izartxoa daramaten kasuetan, planaren gai den sareak egungo errepidea adierazi nahi du kode horrekin, baina trazatu berriko bidea egiten denean, bide berri horrek hartuko du kode hori, eta bide zaharrak zer izen hartu eta zer zerbitzu eman behar duen orduan erabaki beharko da.

## II. ERANSKINA

| KODEA | IZENA | HASIERA | AMAIERA | LUZERA (km) | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|---|

G. NAFARROA-GIPUZKOA LOTURA

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| N-121 | Iruñetik Behobiara (Gipuzkoako tartea) | Nafarroako Foru Erkidegoko muga | Behobia | 7,20 | |

# ANEXO I

## CATÁLOGO DE LA RED OBJETO DEL PLAN GENERAL DE CARRETERAS DEL PAÍS VASCO

| CÓDIGO | DENOMINACIÓN | COMIENZO | FINAL | LONGITUD km | OBSERVACIONES |
|---|---|---|---|---|---|

A. CORREDOR NORTE-SUR

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| A-1 | Autopista Burgos-Cantábrico (Maltzaga) | Límite Álava en Rivabellosa | Eibar (Maltzaga, A-8) | 74,80 | |
| N-I | Madrid-Irun | L.P. Burgos en Rivabellosa | L.P. en Condado de Treviño | 7,75 | |
| N-I | Madrid-Irun | L.P. en Condado de Treviño | Límite C.F. Navarra | 55,54 | |
| N-I | Madrid-Irun | Límite C.F. Navarra | Irun (frontera) | 79,50 | |
| N-102 | De N-I a Vitoria-Gasteiz, dirección Francia | N-I en Ariñez | Vitoria-Gasteiz en Armentia | 5,39 | |
| N-104 | De Vitoria-Gasteiz a N-I, dirección Francia | Vitoria-Gasteiz en Arana | N-I (Venta del Patio) | 9,47 | |
| GI-131 (*) | De Andoain a Donostia-San Sebastián por Hernani | Andoain (N-I) | Donostia-SS (nudo de Loyola) | 14,70 | |
| N-638 | Acceso al aeropuerto de Hondarribia | Variante Norte de Irun | Aeropuerto de Hondarribia | 2,50 | |

B. CORREDOR DE LA CORNISA CANTÁBRICA

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| A-8 | Autopista del Cantábrico | Irun-Behobia | Basauri | 105,69 | Excepto variante de Donostia-SS |
| A-8 | Autopista del Cantábrico | Enlace de Añorga (Donostia-SS) | Enlace de Herrera (Donostia-SS) | 5,27 | Variante de Donostia-SS |
| A-8 | Autopista del Cantábrico | Basauri | Barakaldo (Cruces) | 12,13 | Solución Sur de Bilbao |
| A-8 | Autopista del Cantábrico | Barakaldo (Cruces) | Límite Cantabria | 16,76 | Solución Ugaldebieta |
| A-8 | Segundo cinturón de Donostia/San Sebastián | A-8 en Aritzeta | A-8 en Rentería | 14,50 | |
| N-634 | De Donostia-SS a Santander y La Coruña | Donostia-SS (Recalde N-I) | Atxuri | 110,96 | |
| N-634 (*) | De Donostia-SS a Santander y La Coruña | Basurto (Bilbao) | Límite Cantabria | 22,01 | Una vez puesta en servicio, el itinerario Nocedal-Vte de Zorrotza se considerará a todos los efectos N-634 |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| *N-637* | *De Cruces (intercambiador a Erletxes por el puente de Rontegui)* | *Enlace de Cruces* | *Entronque BI-604* | *3,82* | |
| *N-637* | *De Cruces (intercambiador a Erletxes por el puente de Rontegui)* | *Entronque BI-604* | *Entronque N-633 (Derio)* | *6,73* | |
| *N-637 (*)* | *De Cruces (intercambiador) a Erletxes por el puente de Rontegui)* | *Entronque N-633 (Derio)* | *Erletxes* | *9,64* | *Corredor Txorierri (In cluye variante de Larrabetzu)* |
| *N-633* | *Acceso Este al aeropuerto de Bilbao* | *N-637* | *Aeropuerto* | *4,66* | |
| *N-633* | *Acceso Oeste al aeropuerto de Bilbao* | *Aeropuerto* | *BI-637* | *5,05* | |
| *N-644* | *Autovía del puerto* | *A-8* | *Puerto de Bilbao* | *2,86* | |
| *N-639* | *Acceso al puerto por Zierbena* | *Puerto de Bilbao (Abra Exterior)* | *N-634* | *8,44* | |
| *BI-637* | *De enlace de Erandio a Artaza* | *Enlace N-637* | *Artaza* | *5,42* | |
| *BI-637* | *De Artaza a Sopelana* | *Artaza* | *Sopelana* | *5,50* | *Corredor de Uribe Kosta* |
| *BI-639* | *De Uribe Kosta a A-8* | *Artaza* | *Enlace A-8* | *4,35* | *Corredor de Lamiako* |
| *BI-633* | *De Durango a Ondarroa por Trabakua* | *Matiena (N-634)* | *Ondarroa* | *27,58* | |
| *BI-635* | *De Lemoa a Gernika* | *Lemoa (N-240)* | *Gernika* | *18,43* | |
| *BI-625* | *Acceso por el Norte a Bilbao (itinerario Orduña-Bilbao)* | *Cruce N-634* | *Futura conexión Cornisa de Artxanda (La Salve)* | *4,29* | |
| *BI-625* | *Cornisa de Artxanda (itinerario Orduña-Bilbao)* | *La Salve* | *Ibarrekolanda (BI-604)* | *2,46* | |
| *BI-631 (*)* | *Variante Este de Bilbao* | *A-8* | *Conexión N-633 Sur* | *7,39* | |
| *BI-631* | *Corredor Mungia-Bermeo* | *Conexión N-633 Norte* | *Bermeo* | *24,75* | |
| *BI-604* | *Bilbao a Asua por Enekuri* | *Variante baja de Deusto* | *La Cadena (BI-2704)* | *5,30* | *Variante baja de Deusto-Ibarrekolanda* |

*C. CORREDOR DEL EBRO*

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| *A-68* | *Autopista Bilbao-Zaragoza* | *Enlace A-8 (Solución Sur)* | *Límite Rioja* | *77,00* | *Concesión de la Admón. del Estado* |
| *N-124* | *De Vitoria-Gasteiz a Logroño por Haro* | *Armiñón (N-I)* | *Briñas (límite Rioja)* | *14,38* | |
| *A-124* | *De Briñas a Logroño por Laguardia (tramo T.H. de Álava)* | *L.C. La Rioja (Briñas)* | *L.C. La Rioja* | *27,76* | *A excepción del tramo de San Vicente de la Sonsierra* |

D. CONEXIÓN BIZKAIA-BURGOS

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| BI-636 (*) | De Bilbao a Reinosa | Bilbao (A-8) | Límite provincia Burgos | 29,13 | Corredor del Cadagua |

E. CONEXIÓN BIZKAIA-CANTABRIA

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| BI-630 | De Balmaseda a Carranza | Balmaseda (BI-636) | Límite Cantabria | 24,48 | Se exceptúa el paso por el enclave de Trucíos (Cantabria) |

F. CONEXIÓN BURGOS-SANTANDER

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| N-629 | De Burgos a Santoña | Límite Cantabria | Límite Cantabria | 4,96 | Término municipal de Lanestosa |

G. CONEXIÓN NAVARRA-GIPUZKOA

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| A-15 | Autovía Irurtzun-Aduna | Límite Navarra (Berastegi-Urto) | Aduna (N-I) | 17,32 | |

H. CONEXIÓN ÁLAVA-NAVARRA

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| A-132 | De Vitoria-Gasteiz a Lumbier por Tafalla y Estella | N-104 en Elorriaga | Límite Navarra en Sta. Cruz de Campezo | 37,88 | |

I. CONEXIÓN ÁLAVA-BIZKAIA

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| N-622 | De Vitoria-Gasteiz a Bilbao por la autopista A-68 | Puente s/ la Avd. Zadorra en Vitoria-Gasteiz | Altube (A-68) | 19,35 | |
| N-240 | De Tarragona a Bilbao por el puerto de Barazar | Vitoria-Gasteiz en Gamarra Mayor | Galdakao (El Gallo N-634) | 50,74 | |
| BI-625 | De Orduña a Bilbao | Límite Álava | Cruce N-634 | 17,76 | Incluye tramo de Orduña |
| A-625 | De Orduña a Bilbao | Límite Álava en Areta | Límite Bizkaia | 21,03 | Incluye variante de Amurrio |
| A-623 | De Vitoria-Gasteiz a Durango | Legutiano (N-240) | Límite Bizkaia en Gomilaz | 6,04 | |
| BI-623 | De Vitoria-Gasteiz a Durango | Límite Álava en Gomilaz | Durango (N-634) | 20,86 | |
| N-624 | Acceso al aeropuerto de Foronda | Enlace N-622 | Aeropuerto de Foronda | 3,48 | |

*J. CONEXIÓN ÁLAVA-GIPUZKOA*

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| A-627 | De Vitoria-Gasteiz a Eibar | N-240 | Límite Gipuzkoa | 5,36 | |
| GI-627 | De Vitoria-Gasteiz a Eibar | Límite Álava | Eibar (Maltzaga) | 38,29 | |

*K. CONEXIÓN ÁLAVA-CANTABRIA*

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| A-624 | De Altube a Balmaseda (tramo del T.H. de Álava) | N-622 | L.P. Burgos | 38,39 | |
| BI-624 | De Altube a Balmaseda (tramo del T.H. de Bizkaia) | L.P. Burgos | Balmaseda (BI-636) | 2,64 | |

*L. CONEXIÓN GIPUZKOA-BIZKAIA*

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| N-636 (*) | De Beasain a Durango por Kanpazar | Beasain (N-I) | Límite de Bizkaia | 35,35 | Entre Bergara y Mondragón N-636 coincide con A-1 |
| N-636 (*) | De Beasain a Durango por Kanpazar | Límite Gipuzkoa | Durango | 16,24 | |
| BI-638 | De Deba a Ondarroa | Límite Gipuzkoa | Ondarroa | 1,24 | |
| GI-638 | De Deba a Ondarroa | Deba (N-634) | Límite Bizkaia | 7,90 | |
| GI-631 | De Zumaia a Zumarraga | Zumaia (N-634) | Zumarraga (GI-632) | 34,50 | |

*(*) En los casos señalados con asterisco, la red objeto del plan se refiere a la carretera existente, que adoptará la denominación correspondiente al código nuevo, pero en el momento de construirse la carretera de nuevo trazado ésta será la que adopte el reseñado código, quedando la antigua con la denominación y/o servicio que al efecto se establezca.*

## ANEXO II

| CÓDIGO | DENOMINACIÓN | COMIENZO | FINAL | LONGITUD km | OBSERVACIONES |
|---|---|---|---|---|---|

*G. CONEXIÓN NAVARRA-GIPUZKOA*

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| N-121 | De Pamplona a Behobia (tramo del T.H. de Gipuzkoa) | Límite C.F. de Navarra | Behobia | 7,20 | |

Beraz, lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteizen, 2202ko urriaren 8an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 8 de octubre de 2002.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU

# Agintariak eta Langileria

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

### JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### Zk-5805

AGINDUA, 2002ko urriaren 1ekoa, Justizia, Lan eta Gizarte sailburuarena. Agindu honen bidez, Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundean hutsik dauden zuzendariorde lanpostuak izendapen askez hornitzeko deialdia ebazten da.

2002ko ekainaren 12ko Agindu bidez iragarritako lanpostuak izendapen aske bidez hornitzeko ezarritako prozedura bete egin da (BOE-zk.: 156, 2002ko uztailaren 1ekoa; eta EHAA-zk.: 131, 2002ko uztailaren 11koa). Agindu horretako laugarren oinarria betez, eta uztailaren 1eko 6/1985 Aginte Judizialaren Lege Organikoko 455. eta 500.1. artikuluetan eta otsailaren 23ko 296/1996 Errege Dekretuan (horren bidez, Auzitegiko medikuen kidegoaren arautegi organikoa onartzen da) eta urriaren 24ko 1619/1997 Errege Dekretuan (horren bidez, Auzitegiko medikuen kidegoaren arautegi organikoa aldatzen da) ezarritakoaren arabera, honako hau

EBATZI DUT:

***Lehena.***– Hurrengoak izendatzea:

M.ª Angeles Solano Jaurrieta andrea, NAN-zk.: 10.814.520 duena, Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeko Bizkaiko Zuzendariordetzako zuzendariorde.

Francisco Javier Lezaun Corres jauna, NAN-zk.: 16.545.535 duena, Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeko Arabako Zuzendariordetzako zuzendariorde.

# Autoridades y Personal

## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

### DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

### N°-5805

ORDEN de 1 de octubre de 2002, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se resuelve la convocatoria para la provisión, por el sistema de libre designación, de los puestos de trabajo vacantes de Subdirectores/as del Instituto Vasco de Medicina Legal.

Habiéndose observado el procedimiento establecido para la provisión por el sistema de libre designación de los puestos de trabajo convocados por Orden de 12 de junio de 2002 (BOE n.º 156 de 1 de julio de 2002 y BOPV n.º 131 de 11 de julio de 2002), en cumplimiento de la base cuarta de la misma y conforme a lo dispuesto en los artículos 455 y 500.1 de la Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio del Poder Judicial, Real Decreto 296/1996, de 23 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento Orgánico del Cuerpo de Médicos Forenses y Real Decreto 1619/1997, de 24 de octubre, por el que se modifica el Reglamento Orgánico del Cuerpo de Médicos Forenses,

RESUELVO:

***Primero.***– Designar a:

Dña. María Angeles Solano Jaurrieta con D.N.I. n.º 10.814.520, como Subdirectora en la Subdirección de Bizkaia del Instituto Vasco de Medicina Legal.

D. Francisco Javier Lezaun Corres con D.N.I. n.º 16.545.535, como Subdirector en la Subdirección de Alava del Instituto Vasco de Medicina Legal.